


Euskal AEn eraikuntzaren kostuak %0,7 igo ziren 2017ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta, 2016ko urtarrilarekin alegia, kostuek ez dute aldaketarik izan (%0,0)

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,7 igo zen 2017ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean; hilabete horretarako urte arteko tasak, ordea, ez zuen aldaketarik izan (%0,0), EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilarekin alderatuta, eskulanaren kostua %1,0 igo da, lehengaien kostuak %0,6 igo diren bitartean.

Urtarrilean, aurreko hilaren aldean, Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek ere eboluzio bera izan dute euren lehengaien kostuan; Eraikuntzan %0,6 igo da kostua, eta Obra Zibilean kontsumitutako lehengaietan %1,0. Urte arteko aldian, bi azpisektore horiek ez dute eboluzio bera izan. Eraikuntzako lehengaien kostuak %0,8 jaitsi dira; Obra Zibilekoak, berriz, %3,0 igo dira.

Kontsumitutako lehengaien prezioen artean, 2017ko urtarrila eta 2016ko urtarrila alderatuta, sektore hauek izan dituzte urteko prezioen igoerarik handienak: *Petrolio*

fintzea (%47,5), *Metalurgia* (%4,5) eta *Metalezko gaiak* (%1,3). Aitzitik, azkeneko hamabi hilabeteetan, sektore hauen lehengaien prezioek behera egin dute: *Energia elektrikoa eta gasa* (%5,0), *Kautxua eta plastikoa* (%4,5) eta *Ez metalezko meak* (%2,1).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2017ko Urtarrila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,5	0,7	0,0	0,7
Eraikinak	102,6	0,7	-0,4	0,7
Obra zibila	102,1	1,0	2,5	1,0
LEHENGAI	101,1	0,6	-0,2	0,6
Eraikinak	101,2	0,6	-0,8	0,6
Obra zibila	100,5	1,0	3,0	1,0
LAN-ESKUA	107,4	1,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)